## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO DEPARTAMENTUA

*2011ko urtarrilaren 28ko 5/2011 FORU AGINDUA, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren eskumeneko esparruen alorrean 2010eko ekitaldiko mezenasgoko lehentasuneko jardueren zerrenda onartzen duena.*

Departamentuko foru diputatuak ondoko foru agindua eman du gaur:

2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan hainbat zerga onura aurreikusten ditu Pertsona Fisikoen gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan eta Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan mezenasgoko lehentasuneko jardueretarako jarritako zenbatekoentzat. Aipatu 29. artikuluko lehenengo puntuak dioenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzean prestatuko du mezenasgoko lehentasuneko jardueren zerrenda, baita entitate onuradunena ere, eta jarduera horiek bete behar dituzten beharkizun eta baldintzena.

Zehaztapen horiek 2010eko irailaren 7ko 22/2010 Foru Dekretuak jaso ditu. Hala, 2. artikuluko 2. puntuan ezartzen du zein jarduerari aitortuko zaien lehentasuna kirolaren esparruan. Dena dela, aipatu foru dekretuko 4. artikuluak ezartzen du zein beharkizun eta baldintza bete behar dituzten lehentasuna aitortua duten jarduerek. Lehen beharkizuna orokorra da lehentasuneko jarduera guztientzat, zein esparrutakoak diren kontuan hartu gabe, eta honako hau dio:

«1. Aurreko 2. artikuluan aipatutako jarduera bat edo batzuk egiten edo garatzen dituzten pertsona edo entitateek, 2010. urtea amaitu aurretik, idatziz eskatu beharko dute delako jarduera lehentasunezkoen artean sartzeko, espresuki hala izenda dadin; jarduketa eremuaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundian eskudun den Departamentuari aurkeztuko zaio eskaera hori.»

Gainera, aipatu 4. artikuluko 4. puntuan berariazko beharkizun batzuk ezartzen ditu lehentasuneko jarduerentzat kirolaren esparruan.

Bestalde, Foru Dekretuaren 3. artikuluko 1. puntuan ezartzen duenez, mezenasgoko lehentasuneko entitate onuraduntzat hartua izateko derrigorrezkoa izango da lehentasuneko jarduera irabazi asmorik gabea izatea.

Orain bertan, eskaera batzuk jaso baitira aipatzen dituzten jarduerei lehentasuna aitortzeko, eta 2010eko irailaren 7ko 22/2010 Foru Dekretuak ezarritako gainerako beharkizunak eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatuta, bidezkoa da espresuki hala izendatzea. Horregatik, foru agindu honekin batera doan eranskinean ageri dira lehentasuneko jardueren zerrenda eta haiek egiten dituzten pertsona edo entitateena. Horrela mezenasgoko lehentasuneko entitate onuradunen izaera bereganatzen dute horiek.

Horregatik guztiagatik, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak,

EBATZI DU

*Lehenengo:* Onartzea kirolaren esparruko 2010eko mezenasgoko lehentasuneko jardueren zerrenda, foru agindu honen eranskinetan jasotzen dena.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y ACCION EXTERIOR

*ORDEN FORAL 5/2011, de 28 de enero, por la que se aprueba la relación de actividades prioritarias de mecenazgo en las áreas de competencia del Departamento de Deportes y Acción Exterior del ejercicio 2010.*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

La Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, en su artículo 29, contempla una serie de beneficios fiscales, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en el Impuesto sobre Sociedades y en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, para las cantidades destinadas a las denominadas actividades prioritarias de mecenazgo. El apartado 1 de dicho artículo 29 remite a la Diputación Foral de Gipuzkoa para el posible establecimiento, en cada ejercicio, de una relación de actividades prioritarias de mecenazgo, así como de las entidades beneficiarias y de los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir.

Dichas determinaciones han sido recogidas en el Decreto Foral 22/2010, de 7 de setiembre, que, en su artículo 2, apartado 2, contempla las actividades que son declaradas prioritarias en los ámbitos del deporte. No obstante, el artículo 4 del mencionado decreto foral establece los requisitos y condiciones que las actividades declaradas proritarias deberán además cumplir para adquirir su consideración de tales. El primero de dichos requisitos es genérico para todas las actividades prioritarias, independientemente del ámbito en que se desarrollen, y es el que se enuncia del modo siguiente:

«1. Todas aquellas personas o entidades que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades indicadas en el artículo 2 anterior, deberán presentar, antes de finalizar el año 2010, una solicitud escrita de inclusión de la actividad como prioritaria, a los efectos de su declaración expresa; solicitud que será presentada al Departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa en razón del ámbito de actuación».

Además, el apartado 4 del citado artículo 4 establece unos requisitos específicos para las actividades prioritarias del área del deporte.

Por su parte, el artículo 3, apartado uno, del decreto foral establece el requisito de carecer de ánimo de lucro en el desarrollo de la actividad prioritaria para obtener la consideración de entidad beneficiaria de mecenazgo prioritario.

En este momento, habiéndose recibido una serie de solicitudes relativas a la consideración como priritarias de las actividades a las que se refieren, y comprobado que se cumplen los demás requisitos y condiciones establecidos en el Decreto Foral 22/2010, de 7 de setiembre, procede declarar expresamente tal consideración. Por ello, en el anexo que acompaña a la presente orden foral se recoge la relación de actividades prioritarias y las personas o entidades que las realizan, que adquieren así el carácter de entidades beneficiarias de mecenazgo prioritario.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior,

RESUELVE

*Primero:* Aprobar la relación de actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito del deporte del año 2010, relación que se recoge en los anexos que acompañan a esta orden foral.

*Bigarren:* Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin.

*Hirugarren:* Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2011ko urtarrilaren 28a.—Ramón Martiarena Bergaretxe, idazkari teknikoa.

(45) (1039)

*Segundo:* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero:* La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma recurso contencioso–administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia - San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime pertinente.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

Donostia-San Sebastián, a 28 de enero de 2011.—El secretario técnico, Ramón Martiarena Bergaretxe.

(45) (1039)

I. ERANSKINA / ANEXO I

1. **2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetako eskola kiroleko programen baldintzak betetzen dituzten jarduerak**
Actividades que cumplen los requisitos de los programas de deporte escolar de los cursos 2009-2010 y 2010-2011:

| *Modalitatea / Modalidad* | *Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria* |
|---|---|
| **Arraunketa** / Remo | Ur Kirolak S.D.N. |
| | Tolosaldeko Arraun kluba |
| | Gipuzkoako Arraunketa Federazioa |
| | S.D. Santiagotarrak |
| **Atletismoa** / Atletismo | C.D. Hernani |
| | Ikasberri K E |
| **Errugbia** / Rugby | Ordizia Rugby Elkartea |
| | Bera Bera Rugby Taldea |
| | Eibar Rugby Taldea |
| | Zarauzko Kirol Elkartea |
| **Eskubaloia** / Balonmano | Bera Bera Rugby Taldea |
| | Zarauzko Kirol Elkartea |
| **Futbola** / Fútbol | Zarauzko Kirol Elkartea |
| | C.D. Anaitasuna |
| | Gipuzkoako Futbol Federazioa |
| | S.D. Eibar |
| | C.D. Hernani |
| | Arizmendi Ikastola F.K.E. |
| | Ikasberri K.E. |
| **Igeriketa** / Natación | Tolosaldea IKT |
| | Eibarko Urbat Igeriketa |
| **Karatea** / Karate | Bera Bera Rugby Taldea |
| **Kirol Egokitua** / Deporte Adaptado | Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioa<br>Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado |
| **Patin hockeya** / Hockey sobre patines | Club Deportivo Mundaiz |

| *Modalitatea / Modalidad* | *Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria* |
|---|---|
| **Pilota** / Pelota | C.D. Hernani |
| | Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa |
| | Ikasberri Kirol Elkartea |
| **Piraguismoa** / Piragüismo | Beti Busti K E |
| | S.D, Santiagotarrak |
| **Saskibaloia** / Baloncesto | Easo Saskibaloi Taldea |
| | Iraurgi Saskibaloia |
| | Bera Bera Rugby Taldea |
| | Zarauzko Kirol Elkartea |
| | Hernani Kirol Elkartea |
| | Tolosako Adiskideok Kirol Elkartea |
| **Surfa** / Surf | Bera Bera Rugby Taldea |
| | Gipuzkoako Surf Federazioa |
| **Txirrindularitza** / Ciclismo | Donosti Berri Elkartea |
| | Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa |
| **Urpoloa** / Waterpolo | Club Waterpolo Donostia |

2. **Kirol lehiaketetan parte hartzea 2010ean** / Participación en competiciones deportivas en 2010:

| *Modalitatea / Modalidad* | *Lehiaketa / Competición* | *Entitate onuradura*<br>*Entidad beneficiaria* |
|---|---|---|
| **Arrantza** / Pesca | **Espainiako txapelketak**<br>Campeonatos de España | Arrantzako Euskal Federazioa<br>Federación Vasca de Pesca |
| **Arraunketa, gizonezkoena**<br>Remo masculino | **Traineru Estropaden TKE Liga**<br>Liga ACT de regatas de traineras | Hondarribia Arraun Elkartea |
| | | C.R.O. Orio Arraunketa Elkartea |
| | | Zumaiako Telmo Deun Arraun K.E. |
| | | Pasai Donibane Koxtape A.E. |
| | **Traineruen KAE liga**<br>Liga ARC de traineras | Hondarribia Arraun Elkartea |
| | | Donostiarra Kaiarriba |
| **Arraunketa, emakumezkoena**<br>Remo femenino | **Emakumezkoen KAE liga**<br>Liga ARC femenina | Getariako Arraun Elk. |
| | | Tolosaldeko Arraun kluba |
| **Aulki mugikorreko arrauna**<br>Remo banco móvil | **Espainiako txapelketak**<br>Campeonatos de España | S.D. Santiagotarrak |
| **Atletismoa, gizonezkoena**<br>Atletismo masculino | **Ohorezko liga**<br>Liga de honor | A.D.Real Sociedad de Fútbol |
| | **1. maila**<br>1ª División | Club Atlético San Sebastián |
| **Atletismoa, emakumezkoena**<br>Atletismo femenino | **Ohorezko maila**<br>División de honor | Club Atlético San Sebastián |
| | **1. maila**<br>1ª División | Bidasoa Atletiko Taldea |

| *Modalitatea / Modalidad* | *Lehiaketa / Competición* | *Entitate onuradura*<br>*Entidad beneficiaria* |
|---|---|---|
| **Automobilismoa**<br>Automovilismo | **Seat Leon Super Kopa**<br>Super Copa Seat Leon | Harriet Arruabarrena Rubio |
| | **Europako iraupen txapelketa**<br>Campto. de Europa de Resistencia | Vilariño Motosport |
| | **World series Renault 2.0** | Miguel Otegui Bengoechea |
| | **Espainiako iraupen kopa**<br>Copa de España de Resistencia | Harriet Arruabarrena Rubio |
| | **Auto-Kross**<br>Auto-cross | C.D. Automovilismo Nitokar |
| **Errugbia (gizonezkoak)**<br>Rugby masculino | **Ohorezko maila**<br>División de honor | Bera Bera Rugby Taldea<br>Ordizia Rugby Elkartea |
| | **Ohorezko B maila /**<br>División de Honor B | Eibar Rugby Taldea |
| | **1. maila**<br>1ª División | Club Atlético San Sebastián |
| | | Eibar Rugby Taldea |
| **Eskubaloia, gizonezkoena**<br>Balonmano masculino | **Asobal Liga** / Liga Asobal | Juventud Deportiva Arrate |
| | **Ohorezko B maila** / División de Honor B | Club Deportivo Bidasoa |
| | **1. maila**<br>1ª División | Zarauzko Kirol Elkartea |
| | | Juventud Deportiva Arrate |
| | | Ereintza Elkartea |
| **Eskubaloia, emakumezkoena**<br>Balonmano femenino | **Ohorezko maila**<br>División de honor | Bera Bera Rugby Taldea |
| | **Zilarrezko maila**<br>División de plata | Zarauzko Kirol Elkartea |
| **Futbola, gizonezkoena**<br>Fútbol masculino | **2. maila B**<br>2ª División B | S.D. Eibar |
| | | Real Sociedad de Fútbol S.A.D. |
| | **3. maila**<br>3ª División | S.D. Eibar |
| **Futbola, emakumezkoena**<br>Fútbol femenino | **Superliga** | A.D. Real Sociedad de Fútbol |
| | | S.D. Eibar |
| | **1. maila**<br>1ª División | Zarautz KE |
| | | Añorga KKE |
| **Areto futbola, emakumezkoena**<br>Fútbol Sala femenino | **Zilarrezko maila**<br>División de plata | Ordizia KE |
| **Golfa** / Golf | **Espainiako txapelketa**<br>Campeonato de España | Iñigo Urquizu Arocena |
| **Herri Kirolak**<br>Deportes populares | **Harri-jasotzea**<br>Levantamiento de piedra | Haimar Irigoien Jauregi |
| **Hockeya, belar gainekoa, emakumezkoena**<br>Hockey hierba femenino | **Ohorezko maila**<br>División de honor | A.D.Real Sociedad de Fútbol |
| **Hockeya, belar gainekoa, gizonezkoena**<br>Hockey hierba masculino | **Ohorezko A maila**<br>División de honor A | Club Atlético San Sebastián |
| | **Ohorezko B maila**<br>División de honor B | Club Atlético San Sebastián |
| **Hockeya, patin gainekoa**<br>Hockey sobre patines | **Estatuko iparraldeko liga**<br>Liga nacional norte | C.H. Mundaiz |
| **Igeriketa, emakumezkoena**<br>Natación femenina | **Emakumezkoen Espainiako Txapelketa**<br>Campeonato de España femenino | C.D.N. Bidasoa XXI |

| *Modalitatea / Modalidad* | *Lehiaketa / Competición* | *Entitate onuradura*<br>*Entidad beneficiaria* |
|---|---|---|
| **Karatea** / Karate | **Espainiako Txapelketa**<br>Campeonato de España | Bera Bera Rugby Taldea |
| **Mahai tenisa, emakumezkoena**<br>Tenis de Mesa femenino | **Superliga** | Club Leka Enea de Tenis de Mesa |
| | **Ohorezko maila**<br>División de honor | Club Atlético San Sebastián |
| **Mahai tenisa, gizonezkoena**<br>Tenis de Mesa masculino | **Superliga** | Club Leka Enea de Tenis de Mesa |
| **Mendia** / Montaña | **8.000 m-ko gailurrak igotzea**<br>Ascenso a cumbres de 8.000 m. | Edurne Pasaban Lizarribar |
| **Piraguismoa** / Piragüismo | **Espainiako txapelketak**<br>Campeonatos de España | S.D. Santiagotarrak |
| | | Club Atlético San Sebastián |
| **Saskibaloia, emakumezkoena**<br>Baloncesto femenino | **Ohorezko maila**<br>División de Honor | Txingudi Saski Baloi K.E. |
| | **Emakumeen 2. liga**<br>Liga Femenina 2 | C.D. Ibaeta |
| **Saskibaloia, gizonezkoena**<br>Baloncesto masculino | **ACB liga**<br>Liga ACB | Donosti Gipuzkoa Basket 2001 |
| | **Addeco zilarrezko liga**<br>Liga Addeco plata | Iraurgi Saskibaloia |
| | **EBA liga**<br>Liga EBA | Askatuak, S.T. |
| **Saskibaloi egokitua**<br>Baloncesto adaptado | **2. maila**<br>2ª División | Bera Bera Rugby Taldea |
| **Sofbola** / Sófbol | **Ohorezko maila**<br>División de honor | Club Atlético San Sebastián |
| **Surfa** / Surf | **Surfa, olatu erraldoiak**<br>Surf de olas extremas | Asier Muniain |
| | **Munduko IBA Bodyboard Zirkuitoa** /<br>Circuito Mundial de Bodyboard IBA | Beñat Elosua |
| | | Alex Uranga |
| | **Munduko WQS Surf Zirkuitoa**<br>Circuito Mundial de Surf WQS | Aritz Aranburu |
| | | Hodei Collazo |
| | | Indar Unanue |
| | | Igor Muniain |
| **Txirrindularitza, gizonezkoena**<br>Ciclismo masculino | **Espainiako Txapelketa**<br>Campeonato de España | Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioa |
| | **Espainiako elitekoen eta 23 urtez azpikoen Kopa**<br>Copa de España elite-sub 23 | Fundación Oreki |
| **Txirrindularitza egokitua**<br>Ciclismo adaptado | **Nazioarteko txapelketak**<br>Campeonatos internacionales | Amador Granado Alkorta |

3. **Kirol gertakariak** / Acontecimienos deportivos:

| *Modalitatea / Modalidad* | *Gertaera / Acontecimiento* | *Entitate onuraduna Entidad beneficiaria* |
|---|---|---|
| **Arraunketa** / Remo | **Kontxako estropadak** Regatas de La Concha | Donostia Kultura |
| | **Emakumeen Kontxako Bandera** Bandera Femenina de La Concha | |
| | **TKE ligako estropadak** Liga ACT de traineras | A.C. de Traineras |
| **Atletismoa** / Atletismo | **Juan Mugerza Nazioarteko Krosa** Cross Internacional Juan Mugerza | Mintxeta A.T. |
| | **Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia** ½ Maraton Azkoitia-Azpeitia | Xeye Atletismo K.E. |
| | **Behobia-Donostia lasterketa** Behobia-San Sebastián | Club Deportivo Fortuna |
| | **Donostiako maratoi erdia** ½ Maraton de San Sebastián | S.R.D. Sportmagic |
| | **XXX Hondartza Krosa** Cross Beach | Club Atlético San Sebastián |
| | **Donostiako Nazioarteko Krosa** Cross Internacional de San Sebastián | Fly Group 99, S.L. * |
| | **Donostiako Maratoia** Maratón de San Sebastián | Fly Group 99, S.L. * |
| | **Oinezko Herri Lasterketa** 15 km. Clásica San Sebastián | Fly Group 99, S.L. * |
| | **Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia** Maratón de Montaña del Aitzgorri | Zegamako udala / Ayuntamiento de Zegama |
| **Futbola** / Fútbol | **Donosti Cup torneoa** Donosti Cup | A.D Kirolade |
| | **Jubenilen nazioarteko torneoa** Torneo Internacional Juvenil | Real Sociedad de Fútbol, S.A.D. |
| **Padela** / Pádel | **Donostiako Nazioarteko Pro-Tour** Internaci. de San Sebastián Pro-Tour | Real Club de Tenis de San Sebastián |
| **Pilota** / Pelota | **DV Pilota Torneoa** Torneo de Pelota DV | Ozkarbi Elkartea |
| | **Antiguoko pilota torneoak** Torneos de Pelota del Antiguo | Antiguako Pilotazaleok |
| | **Zesta puntako torneoak** Torneos de cesta punta | Jai Alive, SL * |
| | **Erremonteko torneoak** Torneos de remonte | Oriamendi 2010, SL * |
| | **Josetxo Etxandiren Oroitaldia** Memorial Josetxo Etxandi | Allerru Kirol Elkartea |
| **Piraguismoa** / Piragüismo | **Bidasoa ibaiaren jaitsiera** Descenso del río Bidasoa | SD Santiagotarrak |
| **Surfa** / Surf | **Nazioarteko Bodyboard Air Show** Bodyboard Air Show internacional | Gipuzkoako Surf Federazioa |
| | **San Miguel Pro Zarautz** | Zarauzko Surf Elkartea |
| | **Nazioarteko Pro Junior Surf** | Groseko Indarra Surf Taldea |

| *Modalitatea / Modalidad* | *Gertaera / Acontecimiento* | *Entitate onuraduna Entidad beneficiaria* |
|---|---|---|
| **Tenisa** / Tenis | **Irungo Nazioarteko Torneoa** Torneo Internacional de Irun | Club de Tenis Txingudy |
| | **Nazioarteko ATP Serieak Txapelketa** Concurso Internacional ATP Series | Real Club de Tenis de San Sebastián |
| **Triatloia** / Triatlón | **Donostiako Triatloia** Triatlón de San Sebastián | Club Atlético San Sebastián |
| **Txirrindularitza** / Ciclismo | **Ordiziako Klasikoa** Prueba Villafranca-Clásica Ordiz. | A. D. Chapel Gorri |
| | **Euskal Herriko Itzulia** Vuelta al País Vasco | Organizaciones Ciclistas de Euskadi Euskadiko Txirrindulari Elkarteak |
| | **Donostiako Klasikoa** Clásica Sn. Sebastián-Sn.Sebast. | Organizaciones Ciclistas de Euskadi Euskadiko Txirrindulari Elkarteak |
| | **Asteasuko Nazioarteko Ziklo-Krossa** Ciclo-cross Internac. de Asteasu | Asteasuko Aitzondo Txirrindulari Kirol Elkartea |
| **Zaldi lasterketa** Carreras de caballos | **Lasterketa denboraldiak** Temporadas de carreras | Hipódromos y Apuestas Hípicas de Euskadi, S.A.* |

(*) Mezenasgoko lehentasuneko jarduera egitean irabazi asmorik ez dagoela egiaztatu beharko dute
Deberán acreditar que en la realización de la actividad prioritaria de mecenazgo se carece de ánimo de lucro

4. **Kirolgi Fundazioaren programa eta jarduerak, Gipuzkoako errendimenduko kirola mantendu, sustatu eta antolatzea xede dutenak.**
Los programas y actividades de la Fundación Kirolgi para el sostenimiento, la promoción y la ordenación del deporte de rendimiento en Gipuzkoa.

5. **Emakumeak kirolean parte hartzea bultzatzen duten jarduerak**
Las actividades que fomenten la participación de la mujer en el deporte.

| *Jarduera / Actividad* | *Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria* |
|---|---|
| **Emakumezkoen Sport Mundi Futbol Torneoa** Torneo de Fútbol Femenino Sport Mundi | Fundación Sport Mundi |
| **Emakumezkoen ezker hormako Kutxa saria** | Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa |
| **Emakumezkoen trinketeko Kutxa saria** | Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa |
| **Emakumea Pilotari torneo irekia** | Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa |
| **Emakumea Pilotari egitasmoko "Nesken Paleta Eskolak"** | Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa |
| **Emakumea Pilotari egitasmoko "Partaidetza Guneak"** | Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa |

6. **Kirolean dopaketaren aurkako borroka eta joko garbia bultzatzen dituzten jarduerak**
Las actividades que fomenten la lucha contra el dopaje en el deporte y el juego limpio:

| *Jarduera / Actividad* | *Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria* |
|---|---|
| **Kirol-etik Proiektua** / Proyecto Kirol-etik | Fundación Oreki |
| **XII Hondar Kirolak** | Fundación Sport Mundi |
| **Surf Edition** | Fundación Sport Mundi |

7. **Kirol gaietako mugaz gaindiko lankidetzaren alorrean Kirolaren Eurosareak sustatutako jarduerak.**
Las actividades impulsadas por la Eurored del Deporte en el ámbito de la cooperación transfronteriza en el deporte:

| *Jarduera / Actividad* | *Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria* |
|---|---|
| **Baiona-Donostia Eurohiriko zikloturisten ibilaldia**<br>Marcha cicloturista de la Eurociudad Baiona-San Sebastián | Bera Bera Rugby Taldea |
| **Battelekuen Teink Trofeoa**<br>Trophee Teink de batelekus | Bera Bera Rugby Taldea |
| **Mugaz gaindiko kirol zelaiak**<br>Campus deportivos transfronterizos | Bera Bera Rugby Taldea |
| **Hondartza boleiboleko mugaz gaindiko txapelketa**<br>Torneo transfronterizo de Voley Playa | Bera Bera Rugby Taldea |
| **Klubeko atalen mugaz gaindiko hitzarmenak**<br>Convenios transfronterizos de las secciones del club | Bera Bera Rugby Taldea |

8. **AFEDEGI Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkartearen jarduerak.** Actividades de la Asociación de Federaciones Deportivas Guipuzcoanas (AFEDEGI)

| *Jarduera / Actividad* | *Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria* |
|---|---|
| **Kirolak.net** | AFEDEGI |
| **Kirol probak proiektua** | AFEDEGI |

**9. Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak antolatzen dituen jarduerak, pertsona ezgaituek kirola egitea bultzatzen dutenean.**
Actividades de la Federación Guipuzcoana de Deporte adaptado que promuevan la práctica deportiva por parte de las personas discapacitadas.

| *Jarduera / Actividad* | *Entitate onuraduna / Entidad beneficiaria* |
|---|---|
| **Mota askotako ekintzak**<br>Multiactividad | **Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioa**<br>Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado |